

Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordeko mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkide Mikel Basabe Kortabarriak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresen **agerraldi eskaria** egiten du, “**Preso dauden pertsonen argazkiak kentzeko jarraibideari buruz**” azalpenak eman ditzan, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordearen aurrean.

ZIOA

Ertzaintza pertsona presoan argazkia kentzen ari da egunotan, Herrizaingo sailaren aginduz. Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresen hainbat aldiz azaldu duenez, Legebiltzarrak onartu zuen terrorismoaren biktimen legean oinarritzen duela bere jarraibidea eta legea betetzen ari dela. Baina 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoak, bere laugarren artikuluan, ez ditu preso dauden argazkiak aipatzen. Ez legeak, ezta kode penalak ere. Ez batean ez bestean ez dago jasorik pertsona presoan argazkiak erakustea delitua denik.

Hori dela eta, ezinbesteko deritzogu Herrizaingo sailburuak jardunbide horretarako zein legetako zein artikulutan oinarritzen den azal dezan.

AGERRALDI ESKAERA:

Hori dela eta, Erakunde, Herrizaingo eta Justizia sailburu Rodolfo Aresen **agerraldi eskaria** egiten du, egunokin Ertzaintza pertsona presoan argazkia kentzen ari dela eta, jardunbide horretarako zein legetako zein artikulutan oinarritzen den azal dezan.

Gasteizen, 2009ko uztailaren 16an

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar Legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea